BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3843

AGINDUA, 2014ko abuztuaren 20koa, Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikaletarako hauteskundeen deialdia egiten duena.

Ertzaintzaren barrutian adierazgarria den erakunde sindikal jakin batek luzatu duen proposamena jaso ondoren, eta uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legean (EHAA 155; abuztuak 11) aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta abenduaren 1eko 6/2006 Legeak gai honi buruz egindako aldaketak direla (EHAA 238, abenduak 15) eta Ertzaintzako langile funtzionarioen ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundeak eta erakunde sindikalei dagozkien delegatuak bereizteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuko 3. artikuluan (EHAA 53; martxoak 18) –urriaren 11ko 392/1994 Dekretuak (EHAA 201; urriak 25) aldatu duena– xedatutakoaren babespean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ertzaintzako langile funtzionarioen ordezkari sindikaletarako hauteskundeen deialdia egitea. Uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen III. Goiburuko VIII. Atalean (EHAA 155; abuztuak 11) aurreikusitako erregimenean, eta abenduaren 1eko 6/2006 Legeak gai honi buruz egindako aldaketak direla (EHAA 238, abenduak 15), Ertzaintzako langile funtzionarioen ordezkari sindikaletarako hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren eraketa eta erakunde sindikalei dagozkien delegatuak bereizteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuan (EHAA 53; martxoak 18) –urriaren 11ko 392/1994 Dekretuak (EHAA 2003; urriak 25) aldatu egin duena–, eta honako agindu honetan xedatutakoan oinarrituz beteko da hauteskundea.

Bigarrena.– Honako deialdi honen bidez iragarritako hauteskundeak 2014ko urriaren 30ean egingo dira.

Hirugarrena.– Hauteskunde barrutiak hauteskunde atal eta mahaietan antolatu dira eta honako agindu honen eranskinean adierazi da zein eratan geratu diren finkatuta.

Laugarrena.– Aipatu den martxoaren 16ko 50/1993 Dekretu horren 3.2 artikuluan aurreikusitakoak betetze aldera, errolda orokorra, hauteskunde barrutien arabera, jarraian adierazitako eran finkatu da:

Hauteskunde barrutia	Errolda
Araba	1.495
Bizkaia	4.118
Gipuzkoa	2.240
Erkidego Autonomoan, guztira,	7.853

Bosgarrena.– Hauteskunde barruti horietako bakoitzean hautatu beharreko ordezkarien kopurua, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 99. artikuluan eta martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitakoen arabera, jarraian adierazitakoa izango da:

Hauteskunde barrutia	Ordezkari kopurua
Araba	17
Bizkaia	26
Gipuzkoa	20

Seigarrena.– Hauteskunde kanpaina 2014ko urriaren 14an hasi eta urriaren 28an bukatuko da.

Zazpigarrena.– Emandako zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dituzte Hauteskunde Administrazioko partaideek, dagozkien bilkuretara bertaratzeagatik eta hori, 2012ko urtarrilaren 17an Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruz emandako 5/2012 Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zortzigarrena.– 1.– Segurtasun Sailak bermatu egingo du hauteskundeetako dokumentazioa kopuruz behar adina prestatzeaz eta ziurtatu egingo du, halaber, dokumentazio hori Hauteskunde Batzordeari eman egingo zaiola, ondoren, hauteskunde mahaietara bidai dadin.

2.– Segurtasun Sailak Hauteskunde Administrazioaren organoen eskuetan hautestontziak, kabinak eta hauteskunde prozesua burutzeko beharrezkoak diren gainerako bitarteko materialak eta giza baliabideak jarriko ditu.

3.– Segurtasun Sailak dokumentazioa kopuruz behar adina jarriko du hautagaitzat iragarri diren organizazio, federazio nahiz konfederazio sindikalen esku, hala, hauteskunde prozeduraren baitan bakoitzari dagozkion eginkizunak eta erantzukizunak betetzeko modua izan dezaten.

4.– Ertzaintzako Kontseiluak instituzio mailako kanpaina burutuko du hauteskunde aldiak iraun bitartean, hautesleen artean informazioa zabaltzera eta ordezkarietarako hauteskundeetan parte hartzea sustatzera bideratuta, botoaren norabidean eragina izateko asmorik gabe.

Bederatzigarrena.– Hauteskunde Batzordearen egoitza Giza Baliabideetarako Zuzendaritzan dago (Larrauri Mendotxe Bidea, 18; Erandio).

Hamargarrena.– Honako aginduak amaiera eman dio administrazio-bideari. Honen aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du interesa duenak EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietako salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman den eguneko biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Hamaikagarrena.– Honako aginduaren indarraldia EHAAn argitara ematen den egunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztuaren 20a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

ERANSKINA

ARABA

Hauteskunde atala	Hauteskunde mahaia	Kokagunea	Unitateak
Vitoria-Gasteiz	1	Arkaute	Erakundeen Segurt. Burutza Nagusia Babes eta Segurtasunerako Unitatea Esku-hartze Unitatea Ertzainor Unitatea Eraikinen Segurtasunerako Unitatea Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzua. Idazkaritza Nagusia
Vitoria-Gasteiz	2	Iradier Eraikuntza	Arabako Lurr. Ikerk. Kriminaleko Zerb. AKZ Nagusia Miñoien Atala Arabako Trafikoko L.U. Ikerk. Kriminalerako eta P. J. Burutza Arabako Lurr. Inteligentziako Bulegoa
Vitoria-Gasteiz	3	Ertzainetxea	Gasteizko Ertzainetxea Arabako Lurraldeko Burutza Arabako Lurraldeko AKZ Joko eta Ikuskizun Unitatea Erakunde Harrem. eta Komunik. Zerb. Arabako Lurr. Herritarren Babes. Zerb.
Laudio	Bakarra	Ertzainetxea	Laudioko Ertzainetxea
Biasteri	Bakarra	Ertzainetxea	Guardiako Ertzainetxea

BIZKAIA

Hauteskunde atala	Hauteskunde mahaia	Kokagunea	Unitateak
Bilbo	Bakarra	Ertzainetxea	AKZ Nagusia Foralen Atala Bilboko Ertzainetxea Joko eta Ikuskizun Unitatea Trafikoko Burutza Nagusia
Balmaseda	Bakarra	Ertzainetxea	Balmasedako Ertzainetxea
Basauri	Bakarra	Ertzainetxea	Basauriko Ertzainetxea
Durango	Bakarra	Ertzainetxea	Durangoko Ertzainetxea
Erandio	1	Polizia Eraik. Nag.	Erakunde Harrem. eta Komunik. Zerb. Ertzaintzaren Burua Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzua Herritarren Babeserako Alorra Ekitaldi Handien Koordinazioko Burua Bizkaiko Lurralde Burutza Bizkaiko Lurr. Inteligentziako Bulegoa Ikerk. Kriminalerako eta P. J. Burutza Segurtasun Pribatua Polizia Zientifikoko Burutza Inteligentzia Bulego Nagusia Ikerk. Kriminalerako Alorreko Burutza
Erandio	2	Polizia Eraik. Nag.	Barne Arazoetarako Zerbitzua AKZ Nagusia Bizkaiko Lurr. Ikerk. Kriminaleko Zerb. Bizkaiko Lurraldeko AKZ Idazkaritza Nagusia Bizkaiko Lurr. Herritarren Babes. Zerb.
Erandio	3	Ertzainetxea	Erandioko Ertzainetxea Bizkaiko Trafikoko L.U.
Galdakao	Bakarra	Ertzainetxea	Erandioko Ertzainetxea
Gernika	Bakarra	Ertzainetxea	Gernikako Ertzainetxea
Getxo	Bakarra	Ertzainetxea	Getxoko Ertzainetxea
Muskiz	Bakarra	Ertzainetxea	Muskizko Ertzainetxea
Ondarroa	Bakarra	Ertzainetxea	Ondarroako Ertzainetxea
Sestao	Bakarra	Ertzainetxea	Sestaoko Ertzainetxea
Iurreta	Bakarra	Ertzainetxea	Laguntza Taktikoko Burutza Nagusia Brigada Mugikorra/Laguntzeko Zerb. Zaintza eta Erreskate Unitatea Lehergailuak Indargabetzeko Unitatea

GIPUZKOA

Hauteskunde atala	Hauteskunde mahaia	Kokagunea	Unitateak
Oiartzun	Bakarra	Lurraldeko egoitza	Erakunde Harreman. eta Komunik. Zerb. Gipuzkoako Lurraldeko Burutza Gipuzkoako Lurr. Inteligentziako Bul. Gipuzkoako Lurr. Ikerk. Kriminaleko Zerb. Gipuzkoako Lurraldeko AKZ Gipuzkoako Lurr. Herritarren Babes. Zerb. Mikeleteen Atala Gipuzkoako Trafikoko L.U.
Donostia	Bakarra	Ertzainetxea	Donostiako Ertzainetxea AKZ Nagusia Ikerk. Kriminalerako eta P. J. Burutza Joko eta Ikuskizun Unitatea
Azkoitia	Bakarra	Ertzainetxea	Azkoitiko Ertzainetxea
Beasain	Bakarra	Ertzainetxea	Beasaingo Ertzainetxea
Bergara	Bakarra	Ertzainetxea	Bergarako Ertzainetxea Gipuzkoako Trafikoko L.U.
Eibar	Bakarra	Ertzainetxea	Eibarko Ertzainetxea
Hernani	Bakarra	Ertzainetxea	Hernaniko Ertzainetxea
Irun	Bakarra	Ertzainetxea	Irungo Ertzainetxea Gipuzkoako Lurr. Herritarren Babes. Zerb.
Errentería	Bakarra	Ertzainetxea	Errenteriako Ertzainetxea
Tolosa	Bakarra	Ertzainetxea	Tolosako Ertzainetxea
Zarautz	Bakarra	Ertzainetxea	Zarauzko Ertzainetxea
Zumarraga	Bakarra	Ertzainetxea	Zumarragako Ertzainetxea